

# GIZARTE ANTROPOLOGIAKO GRADUA PRACTICUMeko PROGRAMA



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

**2016-2017 IKASTURTEA**

**Gizarte Antropologiako Practicumeko koordinatzaileak:**  
Margaret Bullen eta Miren Urquijo

**Tutoreak:**

Iñaki Arrieta Urtizbera  
Margaret Bullen  
Mari Luz Esteban Galarza  
Miren Urquijo Arregui

# GIZARTE ANTROPOLOGIAKO PRACTICUMeko PROGRAMA

---

HEFA– UPV/EHU

## AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Profil profesionala, egitekoak eta jarduera arloak
3. Practicumean garatu beharreko gaitasunak
4. Aurreikusitako ikaskuntzen emaitzak
5. Praktiketako zentroko instruktorea
6. Fakultateko tutorea
7. Ikasleak
8. Metodologia
  - a. A Fasea
    - ✓ Eginkizunak: kronograma
    - ✓ Jarduerak egiteko gida
  - b. B Fasea
9. Ebaluazioa
  - a. Fakultateko tutorearen ebaluazioa
  - b. Praktiketako zentroko instruttorearen ebaluazioa
10. Dokumentazioa

## AURRETIKO GOGOETAK

- *Ikasle guztiek Gogoeta Egunkari* batean jaso behar dituzte Practicumeko faseetan planteaturiko jarduerak.
- *Practicumeko fase guztietara joan behar da eta ez egoteak kontuan hartuko dira bukaerako ebaluaketan.*

## 1. SARRERA

Practicuma funtsezko gaia da ikasketa planean. Haren bidez jarduera profesionalera hurbilduko da ikaslea, Antropologia eta gizarte errealitatea ikusiz, behatuz, aztertuz eta etorkizun hurbilean bere lanbidea izango denaren inguruan gogoeta eginez.

Gizarte Antropologiako Graduko laugarren ikasturteko lehen lauhilekoan egingo da Practicum hau eta 18 ECTS kreditu ditu.

## 2. PROFIL PROFESIONALA, EGITEKOAK ETA JARDUERA ARLOAK

### • PROFILA

Gizarte Antropologiako graduduna gizarte-errealitatea aztertzen aditua izango da ikuspegi akademiko-zientifikotik nahiz profesionaletik. Gizartearen gertakariak eta prozesuak interpretatzeko gaitasuna izango du, ikuspegi konparatibo eta holistiko batean oinarrituta. Era berean, gizarte-aniztasunaren sorreran eragiten duten faktoreekiko sentibera izango da. Eremu teoriko eta praktikoak menderatuko ditu eta tokian tokiko ikasketei buruzko informazioa beste kultura arlo batzuetakoarekin konbinatzeko gai izango da.

Bere ezaguerek hainbat arlotan profesionalki aritzeko aukera emango diote, esate baterako, kultruarteko harremanetan, tokian tokiko garapenean eta nazioarteko lankidetzan, kultura ondasunetan eta kultura-kudeaketan, ikerkuntzan eta irakaskuntzan, ikerkuntza aplikatuan eta zerbitzu personal, sanitario eta sozialen. Hori guztia aurrera eramateko, gradudunak etnografiaren gaineko idazketa eta ulermenean prestakuntza izango du eta trebeziak bereganatuko ditu jakintza komunikatzeko, gizartean esku hartzeko eta antropologiako gaietan etengabe hobetzeko.

### • EGINKIZUNAK

Honako hauek dira Gizarte Antropologiaren arloko profesionalen eginkizunetako batzuk:

1. Momentura arte kontuan hartu ez diren laneko aukerak eta/edo arazoak identifikatzea eta aribidean dauden gaiak aztertzea.
2. Gizarte- edo kultura-aniztasunak erakundeko eguneroko dinamikari begira duen garrantzia aintzat hartzea.
3. Prestakuntza-proiektuak, ikerketa-proiektuak (ikuspuntu kualitatiboa) eta/edo esku hartzeko proiektuak gauzatzen laguntzea.
4. Bitartekaritza- eta dinamizazio-zereginak egitea sektore edo kolektibo desberdinen artean.

- BALIZKO JARDUERA ARLOAK

Gida honetan aipatu diren lanbideratze arlo profesionalak balizkoak dira. Horrek ez du esan nahi arlo horiek bat etorri behar dutenik Fakultateko Practicumaren eskaintzarekin.

Aipatutako jarduera arloak honako multzo hauetan sailkatu dira:

- 1.- Etnologia- eta kultura-ondarea

- o Museoetan edo bestelako kultura-guneetan gauzatutako ikerketa-proiektuetan, prestakuntza-proiektuetan eta esku hartzeko proiektuetan laguntza ematea.

- o Museo-jardueren (erakusketa-proiektu, zinema-ziklo, argitalpen, kultura-aste eta abarren) antolakuntzan edo ekitaldi berriak diseinatzeko eta abian jartzeko garaian parte hartzea.

- o Funtsekin eta erakusketekin zerikusia duen informazioa biltzea.

- o Hezkuntza-, lankidetz- eta animazio-lantegiak, belaunaldien arteko topaketak, bisita gidatuak eta jendearentzako arreta prestatzen eta gauzatzen laguntzea.

- o Material didaktikoa prestatzen laguntzea.

- o Tokiko biztanleekin egindako bitartekaritza-lanean parte hartzea.

- o Hartzaile- eta marketin-azterketak (bereziki kualitatiboak) egiten laguntzea, produktu turistikoak garatzea, eta hartzaile berriak erakartzea antropologiaren ikuspuntutik (testuingurua ezagutzeko eta hartzaileengana gerturatzeko).

- 2.- Gizarte-zerbitzuetarako eta osasun-arretarako euskarria

- o Gizarte-ongizateko beharren diagnostikoa egiten eta politikak diseinatzeko laguntzea.

- o Gizarte- eta osasun-jardueren arloetako programen diseinuan eta garapenean parte hartzea.

- o Sailak edo atalak gauzatutako proiektuei ikuspegi kualitatiboa eta kultura artekoa ematea.

- o Sailak edo atalak gauzatutako proiektuei genero-ikuspegia ematea.

- o Programak eta jarduerak diseinatzeko eta abian jartzeko garaian parte hartzea.

- o Programen eta jardueren ebaluazioa egiten eta aholkularitza-zereginetan laguntza ematea.

- 3.- Kultura-kudeaketa eta -sorkuntza eta hizkuntza-plangintza

- o Kultura-programak eta -jarduerak diseinatzeko eta abian jartzeko garaian parte hartzea.

- o Programen eta jardueren ebaluazioa egiten eta aholkularitza-zereginetan laguntza ematea.
- o Kultura-ondarea eta museo-politikak sortzeko, mantentzeko eta garatzeko ekarpena egitea.
- o Euskara sustatzeko eta zabaltzeko zerbitzu eta jarduera linguistikoei babesa ematea eta programetan parte hartzea.
- o Euskarari eta kultura-aniztasunari buruzko programetan parte hartzea.
- o Hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko proiektuetan laguntza ematea.

#### 4.- Ikerketa eta aholkularitza

- o Administrazio publikoen, fundazioen, ikerketa-zentroen eta enpresa pribatuen eremuan gauzatutako ikerketa, diagnostiko eta azterlanen diseinuan eta gauzapenean parte hartzea.
- o Ikerketa-zeregin osagarriak egitea.
- o Landa-lana egitea.
- o Datuak aztertzea eta emaitzen txostena idaztea.

#### 5.- Kultura arteko bitartekaritza, kultura-aniztasuna eta migrazioa

- o Etnia edo kultura anitzeko testuinguruetan gizarte-bitartekaritza egiten laguntzea.
- o Kultura-aniztasunaren azterketa antropologikoa aplikatzea eta beste talde soziokultural batzuen berezitasunetara gerturatzea.
- o Komunikazio-prozesuan eta elkar ulertzeko prozesuan, ikaskuntza-prozesuan, eta elkarbizitza garatzen eta gatazkak kontrolatzen laguntzea.
- o Biztanleria-diagnostikoak egitea.
- o Prestakuntza-prozesuetan parte hartzea eta teknikari eta profesionali aholkularitza ematea kulturaren, migrazio-prozesuen eta aniztasunaren kudeaketaren arloetan, ikuspegia zabaltzeko eta estereotipoak eta aurreiritziak murrizteko helburuarekin.

#### 6.- Industriaren eta enpresa pribatuaren eremua

- o Enpresa-ingurunearekin eta merkatuarekin harremanetan jartzea eta pertsonek horiei buruz duten pertzepzioari buruzko gogoeta egitea.
- o Langileek enpresaren kontzeptuari buruz duten pertzepzioaren azterketari ekarpena egitea.

- o Bezeroek enpresaren eta haren produktuen kontzeptuari eta enpresa lehiakidearen kontzeptuari buruz duten pertzepzioaren azterketari ekarpena egitea.
- o Erabiltzaileen nahi esplizituak edo inplizituak identifikatzen ikastea eta diseinu-parametroetan bihurtzea.
- o Pertsonak produktuak jardunean jartzeko garaian egiten dutenari buruzko azterketa antropologikoari ekarpena egitea.
- o Produktu baten erabilgarritasuna eta interakzio-eraztasuna ebaluatzen laguntzea.
- o Erabiltzaileak hautematen duen kalitatea definitzen duten elementuez jabetzen ikastea.
- o Pertsonetan oinarrituta dauden eta bizi-kalitatea hobetzea helburu duten berrikuntza-tresnak bilatzea.

#### 7.- Tokiko eta nazioarteko garapena

- o Garapenerako lankidetzako proiektuak diseinatzen, planifikatzen edo abian jartzen laguntzea.
- o Gizarterako eta herritarrentzako hobekuntzak lortzea helburu duten herri-ekimenetan bitartekari gisa parte hartzea.
- o Gauzatutako proiektuen ebaluazio-prozesuetan parte hartzea.
- o Hainbat herri, komunitate edo talderen egoera eta premiak aditzera ematea helburu duten sentsibilizazio-proiektuak (lantegiak, jardunaldiak, erakusketak, argitalpenak, etab.) diseinatzen eta/edo egiten laguntzea.

### 3. PRACTICUMean GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

1. Praktika profesionalaren definizio eta garapenari ezagupen teorikoak ezarri.
2. Ikertutako taldeekin lankidetzara eta lan harremanak eraiki eta azterketa egiteko orduan behar den distantzia jarri.
3. Programa eta ikerketa proiektu eta diseinuetan lagundu, erakundearen eskaerari egokitzuz eta bertako ezaugarri eta beharrak kontutan izanik.
4. Erakundeetan bertan gaiak, arazoak eta lan lerroak detektatu eta aztertu.
5. Gizarte esku-hartzeko ereduak indarrean jartzen direneko ondorioak neurtzen jakin.
6. Lanari eta jarduerari gauzatu den erakundeetako kulturari buruzko gogoeten berri ematea, argudioak emanez, idatziz zein ahoz.

#### 4. AURREIKUSITAKO IKASKUNTZEN EMAITZAK

Aldez aurreko trebakuntzaren edukiak aztertzea, ulertzea eta Gizarte Antropologiako testuinguru, zentro eta praktikekin erlazionatzea.

Antropologia lanbidearekiko konpromiso etiko eta deontologikoa hartzea, giza eskubideen errespetutik abiatuta.

Taldean lan egiteko eta komunikatzeko trebetasunak erakustea.

Gizartean eta Antropologian esku hartzeko eremu profesionalen ezaugarriak zehaztea, testuinguruan kokatzea eta alderatzea.

Gizarte eta Antropologia arloko esku hartzean ezaugarriak (profil profesionalak) zehaztea.

Ikaskuntza testuinguruetan gauzatu den gogoeta prozesuaren eta prozesu horren ondorioen berri ematea, argudioak emanez.

#### 5. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREA (ikus gida web orrian)

#### 6. FAKULTATEKO TUTOREA (ikus gida web orrian)

#### 7. IKASLEAK (ikus gida web orrian)

#### 8. METODOLOGIA

- a. A FASEA: (ECTS kreditu 1 = 20 ordu aurrez aurrekoak, eta 5 bestelakoak).

Fakultatean egingo da, honako data hauetan: 2016ko irailak 14, irailak 15, urriak 4, azaroak 8, abenduak 13 eta 2017ko urtarrilak 24. Honen helburua da aurreko moduluetan zehar garatutako gaitasunak Practicumekin loturiko gaitasunekin lotzea, horren inguruan gogoetak eginez, tresnak garatuz, eta zentroaren eta eskarmentudun ikasleen aurkezpenen bidez.

Prozesu hori aurrera eramateko, honako hauek azalduko ditugu ondoren:

- ✓ Aurrez aurreko jardueren kronograma.
- ✓ Jardueren edukia.

## EGINKIZUNEN KRONOGRAMA

AURREZ AURREKO JARDUERAK	EGUNA ASTEAZKENA 09-14; 14:00-18:00 OSTEGUNA 09-15; 14:00-18:00 ASTEARTEA 10-4 ; 14:00-18:00 ASTEARTEA 11-08; 14:00-18:00 ASTEARTEA 12-13; 14:00-16:00 ASTEARTEA 01-24. 14:00-16:00	TOKIA UPV/EHU
<b>PRACTICUMA AURKEZTEA ETA KOKATZEA.</b>	Irailak 14, Asteazkena. Arratsaldez	
1. 2016-17ko Practicumean parte hartuko duten zentroak aurkeztea; Practicumean egin behar dituzten administrazio urratsak azaltzea.	14:00-15:00	GELA 0.6
2.- Arlo desberdinen jarduera adierazgarri batzuen azalpena; Jarraipen lan taldeak osatzea.	15:00-16:00	
<b>ATSEDENA</b>	16:00-16:30	
<p>1. <i>Jarduera. Norbanako proiektuaren hasierako garapena.</i></p> <p>2. <i>Jarduera. Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diseinua.</i></p>	16:30-18:00	<b>GELAK:</b> Iñaki: 0.2 Maggie: 0.3 Mari Luz: 0.4 Miren: 0.5
<b>EGINKIZUNAK, GAITASUNAK ETA PROFILAK: MAHAI-INGURUA</b>	Irailak 15, Osteguna. Arratsaldez	
3. Ikasleen aurkezpenak: Practicum-eko esperientziak eta hausnarketak Mahai-ingurua: Practicumerako finkaturiko eginkizunei eta gaitasunei buruzko eztabaida.	14:00-16:00	GELA 0.6
<b>ATSEDENA</b>	16:00-16:30	
4. Zenbait instruktoreen aurkezpenak: antropologoaren practicumari buruz dituzten pertzepzioak. Mahai-ingurua: Practicumerako finkaturiko profilen eta jarduera arloen eztabaida.	16:30-18:00	
<b>JARRAIPEN MINTEGIA (I)</b>	Urriak 4, Asteartea. Arratsaldez.	<b>GELAK:</b> Iñaki: 0.1.1
5. Ikasleen proiektu eta jarduera planen aurkezpena.	14:00-15:30	Maggie: 0.1.2



3. <i>Jarduera. Norbanako proiektuen garapena</i>		Mari Luz: 0.2 Miren: 0.4
<b>ATSEDENA</b>	15:30-15:45	
4. <i>Jarduera. Ikasle bakoitzak bere praktika arloaren artikulua bat aurkeztuko du.</i>	15:45-18:00	
<b>JARRAIPEN MINTEGIA (II)</b>	Azaroak 8, Asteartea. Arratsaldean.	
6.- Practicumaren jarraipena eta balorazioak: Bateratze lana, zalantzak, ondorioak eta galderak.	14:00-15:45	<b>GELAK:</b> Iñaki: 0.1.1 Maggie: 0.1.2
<b>ATSEDENA</b>	15:45-16:00	Mari Luz: 0.2 Miren: 0.4
7.- Afera etikoak eta gizarte antropologiaren deontologia profesionala.	16:00-18:00	
<b>JARRAIPEN MINTEGIA (III)</b>	Abenduak 13, Asteartea. Arratsaldean	<b>GELAK:</b> Iñaki: 0.1.1 Maggie: 0.1.2
8.- Txostena: helburuak, zalantzak.	14:00-16:00	Mari Luz: 0.2 Miren: 0.4
<b>3./4. MAILEN ARTEKO AURKEZPEN BILERA</b>	Urtarrilak 24, Asteartea. Arratsaldean	GELA: 0.6
9.-Ikasleek Practicumaren esperientziak aurkeztuko dizkiete 3. kurtsoan dauden antropologia ikasleei.	14:00-16:00	
<b>JARDUEREN ZERRENDA</b>		
1. Jarduera . Norbanako proiektuaren hasierako diseinua.		Irailak 14, asteazkena, 16:30-18:00
2. Jarduera. Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diseinua eta antzezpina		Irailak 14, asteazkena, 16:30-18:00
3. Jarduera. Norbanako proiektuaren garapena.		Urriak 4, asteartea, 14:00-15:30
4. Jarduera. Tutorearekin adostutako artikulua baten irakurketa eta iruzkina, bakoitzak bere praktikatako arloari buruzkoa.		Urriak 4, asteartea, 15:45-18:00
5. Jarduera. Gida eta beste material batzuen irakurketa Practicumi dagozkion kudeaketak burutzeko.		Norbanako lana

**1. JARDUERA : Norbanako proiektuaren hasierako diseinua.****HELBURUAK:**

- ✓ Gizarte Antropologiako praktiken zerbitzuak (zentroak) kokatzea bertako egituraren maparen bidez, bere organigrama, lan arloak eta zereginak barne.
- ✓ Zentroak betetzen dituen zereginen artean, hausnartu zeintzuk egin zenitzakete eta norbanako proiektua sortu.
- ✓ Irudikatu profil profesionala eta bakoitzak dituen itxaropenak adierazi, bai pertsonal bai ikaste akademikoaren arloan.

**METODOLOGÍA**

Banakako lana, eta ondoren taldean adierazi .

1. Norbanako proiektua diseinatu.
2. Itxaropenen zerrenda
3. Batera jarri

**2. JARDUERA: Aurkezpen profesionalaren diseinua****HELBURUA:**

- ✓ Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diskurtsoa sortu

**METODOLOGIA**

Taldeka eta banaka.

1. Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diseinua prestatu.
2. Aurkezpen profesionalaren irakurketa.

**3.JARDUERA : Norbanako proiektuaren garapena.****HELBURUA:**

- ✓ Praktiketako norbanako proiektuaren hasierako diseinua garatzea eta hobetzea.

**METODOLOGÍA**

Taldean adierazi eta ondoren banakako lana .

1. Praktiketako norbanako proiektuaren hasierako diseinuan beharrezko aldaketak egin, proiektuaren aukerak eta mugak hausnartzuz, zentroko inktorearen ekarpenen arabera eta norbanakoaren pertzepzioen arabera.

2. Kronograma egin, proiektuaren faseak eta betetzeko eginkizunak definituz.

**4.JARDUERA : Artikulu baten iruzkina.**

**HELBURUA:**

✓ Antropologia aplikatuaren ezagutza zabaldu, bakoitzak bere arloan

**METODOLOGÍA**

Banakako lana eta ondoren taldean adierazi.

- 1.- Tutorearekin adostutako artikulu bat irakurri eta iruzkina idatzi
- 2.- Iruzkina aurkezpena taldean.

b. II. FASEA: (17 kreditu ECTS = 425 ordu: 340 aurrez aurrekoak, eta 85 bestelakoak).

Ikasleei esleitu zaizkien zentro eta zerbitzuetan egingo da irailaren 19tik abenduaren 23ra. Banaka eta denon artean gogoeta egingo dugu praktika aztertzeko (beste profesional batzuen laguntzarekin), parte-hartzaile "behatzaile" papera izanik praktiketako zentroan eta talde bateko kide izanik Fakultatean.

I. Faseko lanetik eta fase horretan eraiki/garatutako ikaskuntza eta tresnetatik (batik bat "Behaketa Gida" eta "Gogoeta Egunkaria") abiatuta, Fakultateak bidali duen zentro/zerbitzuan egongo da ikasle bakoitza. Honako hauei buruzko informazioa jasoko du bertan:

Zentroa zein esparru soziokulturaletan dagoen. Testuinguru horretan zein biztanleriari zuzendua den esku-hartzea. Eskaintzen/eskatzen diren zerbitzuak/programak. Zein beharrei erantzuten dien. Profesional taldea.

Profesionalak zein eginkizun dituen gizarteko jarduera arlo horretan. Eguneroko lanean erabiltzen dituen metodologia, estrategiak eta baliabideak.

Profesionalak zein arazo praktikori egin behar dien aurre. Haren bizipen pertsonala.

Fakultatean egingo diren Jarraipen Batzordeetan ere (talde txikietan eta HEFAko tutoreak lagunduta) egiaztatu eta hausnartu egingo da informazio hau.

**TXOSTENA**

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko Azken Memoria egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan jardun diren azalduko eta analizatuko dute.

Honako estilo hau erabiliko da: tipografia: Times New Roman edo Arial 12; lerrotartea: 1,5; luzera: 25 orr. gehienez.

Txosten horretan hainbat alderdi landuko dira, hala nola:

1. Ikaslearen datu pertsonalak (portadan)
2. Praktiketako zentroko testuinguruaren identifikazio eta analista (5 orr.)
  - Testuinguru orokorra: identifikazio datuak, kokalekua, zentro mota, zein erakunderen menpe dagoen, ekonomia-erregimen eta zentroaren jarduera arloa erregulatzeko duen araudia.
  - Zentroa kokatuta dagoen esparru soziokulturala. Zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuak, proiektuak eta programak, ezaugarriak, etab.
  - Zentroaren antolakuntza testuinguruaren. Zuzendaritza eta kudeaketa organoa. Lantaldea: profesionalak, funtzioak, lan metodologia. Garatzen diren sareak.
  - Zentroaren beharren identifikatzea eta testuinguru jakin batean txertatzea profil profesionalari dagozkion gaitasunak erantsiz.
3. Praktika prozesua eta norbanako proiektua (15 orr.)
  - Praktika programaren diseinua: helburuak, metodologia, jarduerak eta erantzukizun maila.
  - Jarduera arloak, estrategiak eta baliabideak.
  - Dedikazioa eta bere gain hartu dituen eginkizunak
4. Eginiko lanaren azterketa eta hausnarketa pertsonala (4 orr.)
  - Prestakuntza-ibilbidearen azterketa eta Prestakuntza Proiektuari buruzko balioespena: ikaskuntzaren emaitzak.
  - Gizarte Antropologiako profil profesionala: heziketa akademiko-zientifikoari buruzko gogoeta orokorra, rol profesionalari ematen zaizkion funtzioak, trebetasunak eta jarrera pertsonalak. Autopertzepzio profesionala. Lanbide barruko eta lanbide arteko harremanen esparrua.
  - Practicumeko prestakuntza ibilbidearen analisia eta ikaskuntzarako ekarpenak mintegietan egindako lanaren bidez.
  - Faktore positiboak eta hobe daitekeen elementuak.
5. Practicumaren ebaluaketa orokorra ikaslearen bizipen pertsonalatik (1 orr.)
  - Practicumeko prozesuan zehar gogoeta bultzatzeko eta azken txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak bere esperientziari buruzko oharrak idatziko ditu eguneroko batean.

## 9. PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

Bi atal handi hartuko dira kontuan Practicumaren ebaluazioa egiteko: Fakultatean eginiko lana jasoko da lehenbizikoan, eta praktiketako zentroan egindakoa bigarrenean. Bi atal horiek gainditu beharko dira Practicuma gainditzeko.

### a. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

Fakultateko tutoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzeko edo baloratzeko garaian:

- Fakultatean antolatutako jarduerak, mintegi eta tutoretza guztietara joan den eta zer-nolako parte hartzea izan duen.
- Saio formatiboetan sortutako dossierra, antropologia aplikatua nahiz praktiketako arlo espezifikoari buruzkoa artikuluen iruzkinak barne.
- Trebetasun sozialak izatea kideekin mintzatzeko eta erlazionatzeko.
- Estrategia eta prozeduren garapena eta erabilera praktika profesionalen.
- Practicumaren Azken Memoria: ebaluazio irizpideak
  - o Memoriaren irizpideetara eta egiturara egokitzea: argitasuna eta koherentzia datuak aurkeztean. Unibertsitateko eskakizun maila beteko du dokumentuaren erredakzioak.
  - o Zehaztapena, zorrotasuna eta argitasuna dokumentuaren azalpenean eta argudioak ematean. Lanbideko berezko hiztegia behar bezala erabiltzea.
  - o Eginiko praktiken inguruko azterketan eta gogoetan sakontzea.
  - o Garatutako lan arloan Gizarte Antropologiako profesionalaren eginkizunetik egokitzapena eta konpromisoa. Profil profesionalaren azterketa eta hausnarketa karreran zehar landutako ikasketa-zientzia prestakuntzaren esparruan.
- Gogoeta egunkaria
- 

### b. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA

Practicuma amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori alde zurretik jasoko du, eta bete ondoren, Fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

Praktiketako zentroko instruktoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian:

- Aldez zurretik hitzartutako egutegiak eta ordutegiak bete dituen.
- Bere zereginak bete dituen, halakotzat hartuko dira dedikazioa, erakutsitako gaitasuna, interesa eta jarrera arduratsu eta burutsua.
- Talde profesionalen esparruan izandako elkarlana, ekimenerako gaitasuna.
- Ebaluazio orria betetzea.

Honako hauek jasoko dira atal honetan:

- Praktiketako zentroan prestatzen ari den Gizarte Antropologo gisa izandako esperientziaren inguruko gogoeta.
- Fakultateko lan saioetan izandako parte hartzearen balorazioa.
- Memoria prestatzeko prozesuaren inguruko azterketa eta gogoeta, faseetako bakoitzean.
- Practicumen aldi honetako ikaskuntza esanguratsuenen sintesia.

- Eranskinak: Egunkaria/Egunkariaren azterketa; dokumentu erreferentziak, beste ...

## 10.DOKUMENTAZIOA

### Webografia

PRAKTIKETAKO BATZORDEA (2012). Gizarte Antropologiako Practicumeko Gida. HEFA U.P.V./E.H.U. <http://www.ehu.es/es/web/filosofia-hezkuntza-zientziak/antropologia>

### Bibliografía

ANKULEGI 6 (2002) El futuro profesional de la antropología.

BULLEN, Margaret, "Cuando la administración apuesta por el cambio: complejidades y paradojas en el contexto vasco", en Mercedes Jabardo, Pilar Monreal, Pablo Palenzuela (coords.) Antropología de orientación pública. Visibilización y compromiso de la antropología, Donostia-San Sebastián: ANKULEGI antropología elkarte. 227-245. 2008

BULLEN, Margaret, "Antropología feminista, antropología aplicada: encuentros y desencuentros", en Ester Massó y Sandra Santos, El Sentido de la Antropología Hoy, edición monográfica de la Revista de Antropología Experimental (online)

BULLEN, Margaret & Pecharromán, Begoña (2005) "La antropología aplicada y el análisis de políticas públicas sobre inmigración, inserción laboral e igualdad" en Carmen Díez & Carmen Gregorio (coords.) Cambios culturales y desigualdades de género en el marco local-global actual, Sevilla: 65-83.

BULLEN, Margaret y PECHARROMÁN, Begoña (2006) "La profesionalización de la antropología ¿ficción o realidad?", Actas del VII Congreso Internacional de la Sociedad Española de Antropología Aplicada, Santander.

BULLEN, Margaret & URQUIJO, Miren (2014) "Los primeros pasos del Practicum en el grado de Antropología Social de la UPV-EHU", en SOTO MARATA, Pepi, GIMÉNEZ ROMERO, Carlos, DÍEZ MINTEGUI, Carmen, *Entre las exigencias disciplinares y las exigencias laborales. Diálogos, límites e identidad profesional en la formación de antropólogos y antropólogas en España*, Periferias, fronteras y diálogos, Actas del XIII Congreso de Antropología de la Federación de Asociaciones de Antropología del Estado Español, Tarragona, pp. 5028-5043.

BUXÓ, María Jesús (1996) "Antropología, prospectiva y nuevas tecnologías", en J. Prat & A. Martínez (eds.) Ensayos de antropología cultural: Homenaje a Claudio Esteva-Fabregat, Barcelona, Ariel, pp. 417-422.

(2002) "Antropología Aplicada: razón crítica y razones prácticas, ANKULEGI 6, pp.145-162.

GIMÉNEZ ROMERO, Carlos (coord.) (1999) Antropología más allá de la academia: aplicaciones, contribuciones prácticas e intervención social, Santiago de Compostela, FAAEE & AGA.

JABARDO VELASCO, Mercedes (1999) Entre la academia y la sociedad: reflexiones entre la teoría y la práctica de la intervención social con inmigrantes, en C. Giménez (coord.) Antropología más allá de la academia, pp.155-164.

MAIR, Lucy (1963): "Antropología aplicada". Enciclopedia Internacional de las Ciencias Sociales, Vol. 1. MONREAL REQUENA, Pilar (1999) "La perspectiva de género en las políticas públicas", en C. Giménez (coord.) Antropología más allá de la academia, pp.81-85.

PINK, Sarah (ed.) (2006) Applications of Anthropology: Professional Anthropology in the Twenty-first Century, New York & Oxford, Berghahn Books.

ROCA I GIRONA, J. (2001) "¿Antropólogos en la empresa?: A propósito de la (mal) llamada cultura de empresa" Etnográfica, Vol. V (1), pp. 69-99.

URQUIJO, Miren (2007) "Una antropóloga en el ciberespacio", II Congreso Internacional de Etnografía y Educación, Universidad Autónoma de Barcelona, <http://seneca.uab.es/antropologia/emigra/congres/cast/programa.html>